

EL DIARIO VASCO

Astigarraga

Astigarragako sagardogileak izango dira gaur protagonista Ergobia auzoko plazan

Dastaketa eguerdiko 12:00etan hasiko da eta antolatzaileek adierazi dutenez «nahi adina sagardo eta pintxo izango da»



Sagardogile ezberdinak lehiatuko dira gaur eguerdian Ergobian, LXI. Sagardo Txapelketan. MARÍA



María Cortés

Astigarraga

Sábado, 24 de agosto 2024, 20:03 | Actualizado 20:20h.

Seguir

Comenta



Dagoeneko jai giroa dute Ergobian eta bihar arte gozatzeko aukera izango dute bertara gerturatzeko diren pertsonen. Gaur adibidez, Sagardo Eguna da. Goizean, 10:30etan, meza nagusia ospatuko da Astigarragako Andre Maria parroki elizan, auzoko hildakoen oroimenez. Ondoren, 11:30etatuk aurrera, LXI. Sagardo Lehiaketa. Astigarragako sagardogile guztiak izango dira gonbidatuak. Dastaketa eguerdiko 12:00etan hasiko da plazan eta antolatzaileek adierazi dutenez, «nahi adina sagardo eta pintxo izango da hurbiltzen diren guztientzat».

Arratsaldean berriz, 17:30etatik aurrera, harrijasotzaileen txanda izango da. Emakumezkoen III. Txapelketa antolatu da, 55 kiloko 'Etxepazter' harriarekin; eta Gizonezkoen kasuan, X. Txapelketa Ergobiko 104 kiloko 'Harri Beltza'rekin. Partehartzaileak honako hauek izango dira: Karmele Gisasola 'Zelai III', Ainitze Zumeta, Lierni Osa eta Maddi Gesalaga emakumezkoetan; eta Mikel Lopetegi 'Urta', Paulo Azpiazu, Xabat Olaizola eta Iraitz Arruti, gizonezkoetan. Gauean, 21:00etatik aurrera, afaria, karpan. Afalostean, Izer eta Alabierrekin erromeria. 23:00etan, zezensuzkoa.

Baserritarren Eguna

Biharko Baserritarren Egunarekin agurtuko dituzte Ergobiko jaiak. Goizean, 11:00etan, LVIII. Ergobiko Idi Demak ez du hutsik egingo. Bertan izango dira Matxain, Pagadizabal eta Igeldo. Eguedian berriz, bazkari ofiziala.

Programazioaren azken ekitaldiak arratsaldean izango dira.

17:30etan, zaldi proba, Imanol Paollaren eta Santa Klararen zaldiekin. Ondoren, 19:30etan, Ergobiko haur eta helduen danborrada. Azken

gauean, 23:00etan, zezensuzkoa, ondoren, su artifizialak eta 23:30etan, Ergobision.

 Comenta

 Reporta un error

